

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak erakartzeko hiru metodo nagusi erabiliko ditugu: lehengoa, publizitate fisikoa izango da, gure helbidea, prezioak eta produktuak erakusten dituzten folletoak jarriko ditugu postontzietan; bigarrena, sare sozialen (Instagram, Facebook, Twitter, Tinder eta gure webgunea) bitartez izango da, nagusiki, gazteei gure produktua helarazteko eta azkenik, webgunetan publizitatea jarri. Horretaz gain, gure bezeroak



mantentzeko eta finkatzeko ticket bat ipiniko dugu; ticket honen bitartez erosketa bakoitzeko (5€ gutxienez) sello bat jarriko dugu ticketan eta 10 lortzen dituztenean produktu bat emango diegu dohainik (10€koa gehinez). Gainera ofertak ipiniko ditugu, diru apur bat gehiagoren truke beste produktu bat emango diegu (adibidez, elastikoak, panpinak...)